Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2261

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 10ekoa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena. Honen bidez aldatu egiten da antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jardueretarako diru-laguntzen araubidea ezartzen duen Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 10eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra.

AURREKARIAK

1.– Kultura sailburuaren 2008ko abenduaren 10eko Aginduak antzerkiko profesionalak prestatzeko diru-laguntzen deialdia egin zuen eta bere 2.2 artikuluan diru-laguntza horien zenbateko orokorra ehun eta berrogeita hamar mila ehun eta hirurogeita hamazazpi eurotan (150.177) finkatu zuen.

2.– Halaber, agindu horren lehen xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten zen:

«Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 2. artikuluan ezarritako zenbateko globala aldatu ahal izango da, baldin eta Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da».

3.– 2008ko abenduaren 31n deitutako antzerkiko profesionalak prestatzeko diru-laguntzen eskabide-epea ireki zen eta urtarrilaren 30ean itxi zen. Epe horretan ikusi da jasotako eskabide eta diru-laguntzen kopuruagatik komenigarria izango litzatekeela modalitate horietarako zegoen diru-kopurua handitzea.

4.– Une honetan, diru-laguntzen deia egiten duen aginduaren xedapen gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea badago,

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Antzerkiko profesionalak prestatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen 2008ko abenduaren 10eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbatekoa hogei mila eurotan (20.000,00) handitzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2261

RESOLUCIÓN de 10 de marzo de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 10 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones a programas y actividades destinados a la formación de profesionales del teatro.

ANTECEDENTES

1.– La Orden de 10 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura, realizaba la convocatoria de ayudas para la formación de profesionales del teatro y en su artículo 2.2 fijaba el importe global de dichas ayudas en la cantidad de ciento cincuenta mil ciento setenta y siete euros (150.177).

2.– Asimismo, en la Disposición Adicional primera de la misma Orden se preveía lo siguiente:

«El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas».

3.– Con fecha 31 de diciembre de 2008 quedó abierto el plazo de presentación de solicitudes para acceder a las ayudas a la formación de profesionales del teatro que se cerrará el 30 de enero. A lo largo de este periodo se ha constatado que el número de proyectos y las cantidades solicitadas para las modalidades incluidas en las ayudas a la formación de profesionales del teatro, haría aconsejable un incremento de la cantidad destinada a dicha modalidad.

4.– Dado que existe en este momento disponibilidad presupuestaria en los términos previstos en la Disposición Adicional de la Orden de convocatoria de las ayudas.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Incrementar en veinte mil euros (20.000,00) el importe global máximo destinado en la Orden de 10 de diciembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones a programas y actividades destinados a la formación de profesionales del teatro.

Beraz, aipaturiko aginduaren 2.2 artikuluan aurreikusitako diru-kopurua ehun eta hirurogeita hamar mila ehun eta hirurogeita hamazazpi eurotan (170.177) finkatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Bigarrena.– Aurreko artikuluan ezarritako gehikuntzak eragina izango du antzerkiko profesionalen prestakuntza osorako ikastaroen antolaketa-moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 10a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

Por tanto, la cantidad global máxima prevista en el artículo 2.2 de dicha convocatoria, queda fijada en de ciento setenta mil ciento setenta y siete (170.177).

Segundo.– Publicar la presente Resolución en el BOPV.

DISPOSICIONES FINALES

Primero.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV ante la Consejera de Cultura.

Segundo.– El incremento fijado en el artículo anterior repercutirá en la modalidad de organización de cursos destinados a la formación integral de profesionales del teatro..

Tercero.– La presente Resolución surtirá efectos desde su adopción.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.